Código de validación/*Balidazio kodea*
186C5D2O6E0E0X3V1BEZ

***2019KO APIRILAREN 09AN EGINDAKO OHIKOA BILKURAREN AKTA***

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 09 DE ABRIL DE 2019**

| Asistentes/*Etorritakoak* |
|---|
| **ALCALDE/*ALKATEA***<br>JUAN CARLOS ABASCAL CANDÁS<br>**CONCEJALES/*ZINEGOTZIAK***<br>ROSA MARIA CID SEARA<br>MIGUEL LEDESMA PIÑEIRO<br>JOL GUISASOLA GARAY<br>ARRITOKIETA ARAIZTEGI ARRIZABALAGA<br>SILVIA SERRANO GÓMEZ<br>JESÚS MARTÍN DÍAZ<br>JOSE LUIS ARAUJO ARAUJO<br>BEATRIZ GÁMIZ MATA<br>JOSE RAMON GOMBAU IBARZ<br>PAUL YARZA AGIRREGOMEZCORTA<br>JULEN DOMÍNGUEZ SÁNCHEZ |
| **SECRETARIA HABILITADA/*IDAZKARI GAITUA***<br>BLANCA BARRAGÁN ALBA<br>**DIRECTORA/*ZUZENDARIA***<br>ROSALÍA HERRERA YUSTE<br>**ÁREAS/*ALORRAK***<br>MERCEDES GONZÁLEZ DE CELIS (Directora Área Personas)<br>ANA MARIA ENZUNZA GUTIÉRREZ (Técnica Inmigración) |

| Ausentes/*Etorri ez direnak* |
|---|
| MIREIA ARGINZONIZ GARITAONANDIA<br>HIART REDONDO URUEÑA<br>JAVIER LOBATO TEDEJO<br>ALBERTO GARCÍA ABAD SÁNCHEZ<br>FERNANDO LECUMBERRI GAISÁN |

*Udaletxeko bilkura aretoan, 2019ko apirilaren 09an 9:30an, orrialdearen hasieran adierazten diren Udaleko kideak lehenengo deialdian bildu dira, ohikoa bilkuran.*

*Idazkari Gaituak bilera hasteko behar besteko quoruma dagoela frogatu ondoren, Alkateak bilkurari hasiera eman dio eta publikoa dela adierazi du. Jarraian gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin dio.*

En el salón de sesiones de la Casa Consistorial, a las 9:30 del día 09 de abril de 2019, en primera convocatoria, se reúnen los/as miembros de la Corporación antes citados/as, en sesión ordinaria .

Una vez comprobada por la Secretaria Habilitada la existencia de quórum necesario para poder iniciar la sesión, el Alcalde abre la misma y la declara pública. Seguidamente se procede a tratar los asuntos incluidos en el Orden del Día.

**1. *BILKURAN DAUDEN PERTSONEI EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO EDOZEIN GAIREKIN ZERIKUSIA DUEN EDOZER GAUZA GARRANTZITSU JAKITERA EMATEKO ALKATEAREN GONBIDAPENA***

*Bilkuran dauden pertsonei eguneko gai-zerrendako edozein gairekin lotutako edozein interes zuzen eta garrantzitsu jakitera emateko alkateak egin dien gonbidapenari pertsona horiek erantzun diote ez dela beraiengan gertatzen abstenitzera behartzen duen inolako arrazoirik.*

*Bilkura publikoa da eta herritarrei irekia.*

**1. INVITACIÓN A LAS PERSONAS ASISTENTES A QUE COMUNIQUEN CUALQUIER INTERÉS RELEVANTE QUE PUDIERA EXISTIR EN RELACIÓN CON CUALQUIERA DE LOS ASUNTOS INCLUIDOS EN EL ORDEN DEL DÍA DE LA SESIÓN**

A la invitación del Alcalde para que las personas asistentes a esta sesión comuniquen si tienen un interés relevante en relación con cualquiera de los asuntos incluidos en el orden del día, responden que no concurre en ellas causa alguna que les obligue abstenerse.

La sesión es pública y abierta a la ciudadanía.

**2. *2019/04/02AN EGINIKO BILKURA-AKTAREN ONESPENA***

**2. APROBACIÓN DEL ACTA DE FECHA 02/04/2019**

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 6* | PSE-EE/PSOE: A favor 6 |

Código de validación/*Balidazio kodea*
186C5D2O6E0E0X3V1BEZ

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *EH Bildu: Aldekoak 1* | EH Bildu: A favor 1 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 1 Abstenzioak 2 (ez zeuden)* | EAJ/PNV: A favor 1Abstenciones 2 (ausentes) |
| *PP: Aldekoak 1* | PP: A favor 1 |
| *Irabazi: Aldekoak 1* | Irabazi: A favor 1 |

***Lehenengo erabakia:***

***"2019/04/02an eginiko bilkuraren akta onestea, Toki-erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Lege-erregimenari buruzko Araudiaren 36. artikuluan eta Udal Organoen Erregelamenduaren 43.ean ezarritakoari jarraituz".***

**Primer acuerdo:**

**"Aprobar el acta de la sesión celebrada en fecha 02/04/2019, conforme a lo preceptuado en los artículos 36 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales y 43 del Reglamento orgánico propio de la Corporación".**

3. ***ZALDIBARKO ENPRESA BATEAN ORDEZKARI SINDIKAL BATI EGINDAKO ERASOAREN INGURUAN EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA***

3. **INFORMACIÓN SOBRE LA MOCIÓN PRESENTADA POR EH-BILDU RELATIVA A LA AGRESIÓN EN UNA EMPRESA DE ZALDIBAR A UNA DELEGADA SINDICAL**

4. ***UDAL GIZARTE ZERBITZUETAKO 2018KO MEMORIAREN AURKEZPENA***

4. **PRESENTACIÓN MEMORIA SS SOCIALES MUNICIPALES 2018**

*Puntu honetan saioarekin bat egin du Jol Gisasola Garaik*

En este punto se incorpora a la sesión Jol Gisasola Garai.

**5. *NAZIOARTEKO KOOPERAZIO ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOEN ALDAKETA PARTZIALARI BURUZKO INFORMAZIOA***

**5. INFORMACIÓN SOBRE LA MODIFICACIÓN PARCIAL DE BASES ESPECÍFICAS PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES EN MATERIA DE COOPERACIÓN INTERNACIONAL**

**6. *INGURUMEN ARLOKO LAGUNTZA EDO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOEN ALDAKETA HASIERAKO IZAERAZ ONESTEARI BURUZKO EBAZPEN-PROPOSAMENA***

**6. PROPUESTA DE RESOLUCIÓN SOBRE APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DE LAS BASES ESPECÍFICAS PARA LA CONCESIÓN DE AYUDAS O SUBVENCIONES EN MATERIA DE MEDIO AMBIENTE**

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 6* | PSE-EE/PSOE: A favor 6 |
| *EH Bildu: Aldekoak 1* | EH Bildu: A favor 1 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 3* | EAJ/PNV: A favor 3 |
| *PP: Aldekoak 1* | PP: A favor 1 |
| *Irabazi: Aldekoak 1* | Irabazi: A favor 1 |

***Bigarren erabakia:***

*1. "Ingurumen Arloko laguntza edo diru-laguntzak emateko oinarri espezifikoen" aldaketa, hasierako izaeraz onestea, horretarako izapidetu den espedientean jasotakoari jarraituz.*

*2. Erabaki hori hogeita hamar lanegunez jendaurrean erakustea, iragarki-oholean iragarkia itsatsiz, eta eguneroko prentsan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Epe horren barruan interesdunek espedientea aztertu eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak, alegazioak eta*

**Segundo acuerdo:**

1º. Aprobar inicialmente la modificación de las "Bases específicas para la concesión de ayudas o subvenciones en materia de medio ambiente", en los términos que constan en el expediente tramitado al efecto.

2º. Exponer al público el anterior acuerdo, durante treinta días hábiles, mediante anuncio publicado en el tablón de anuncios, en la prensa diaria y en el Boletín Oficial de Bizkaia, dentro de los cuales las personas interesadas podrán examinar el expediente y presentar las reclamaciones,

Código de validación/*Balidazio kodea*
186C5D2O6E0E0X3V1BEZ

*iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte.*

alegaciones o sugerencias que estimen oportunas.

*3. Erreklamazio, alegazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, erabakia behinbetikoa izango da eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da testu osoa, Udalbatzarrak gai horren inguruan berariaz beste adierazpenik egin beharrik gabe.*

3º. En el supuesto de que no se presenten reclamaciones, alegaciones o sugerencias, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo, procediéndose a la publicación íntegra de su texto en el Boletín Oficial de Bizkaia, sin necesidad de nuevo pronunciamiento expreso del Pleno de la Corporación.

***INGURUMEN ARLOKO LAGUNTZA EDO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK***

**BASES ESPECÍFICAS PARA LA CONCESIÓN DE AYUDAS O SUBVENCIONES EN MATERIA DE MEDIO AMBIENTE**

***1. artikulua. Diru-laguntzaren xedea***

**Artículo 1. Objeto de la subvención**

*a) Ermua hiri osasungarria, lagunkoia, irisgarria eta ingurumenarekin konprometitua izan dadin laguntzen duten jarduerak egiteari ekonomikoki laguntzea.*

a) Apoyar económicamente la realización de acciones que contribuyan a que Ermua sea una ciudad saludable, amigable, accesible y comprometida con el medio ambiente.

*b) Komunitatea ingurumen-hezkuntzarekin lotutako jarduera eta programetan inplikatzea bultzatzen duten jarduerak egiteari ekonomikoki laguntzea.*

b) Apoyar económicamente la realización de acciones que fomenten la implicación de la comunidad en actividades y programas relacionados con la educación ambiental.

*c) Biztanleria guztiari orokorrean zuzendutako ingurumenaren arloko zabalkunde eta sentsibilizazio proiektuak egiteari ekonomikoki laguntzea.*

c) Apoyar económicamente la elaboración de proyectos de difusión y sensibilización ambiental destinados a la población general.

*d) Animaliak abandonatzearen eta tratu txarrak ematearen kontra kontzientzia hartzeko jarduerak suspertzeari ekonomikoki laguntzea.*

d) Apoyar económicamente la promoción de acciones de concienciación contra el abandono y el maltrato animal.

*e) Animaliak dituzten eta ez dituztenen arteko hiritar-bizikidetza hobetzeko jarduerak suspertzeari ekonomikoki laguntzea.*

e) Apoyar económicamente la promoción de acciones de mejora de la convivencia ciudadana entre las personas propietarias

de mascotas y quienes no lo son.

*f) Animalien edukitza arautzen duen ordenantza hobeto betetzera zuzendutako jarduerak suspertzeari ekonomikoki laguntzea.*

f) Apoyar económicamente la promoción de acciones que favorezcan el cumplimiento de la ordenanza de tenencia de animales.

***2. artikulua. Onuradunak***

**Artículo 2. Personas beneficiarias**

*Diru-laguntzaren onuradun izango da aurreko puntuan azaldutako programa edo jarduerak bultzatu edo egiten dituen elkartea.*

Tendrá la consideración de beneficiaria toda asociación que promueva o realice los programas y las actividades descritas en el punto anterior.

*Irabazi-asmorik gabeko elkarte eta kolektiboak izan beharko dira, Ermukoak, lankidetzaren xede diren jarduera edo programak suspertzen edo egiten dituztenak.*

Deberán ser asociaciones y colectivos sin ánimo de lucro, radicadas en Ermua, que promuevan o realicen la actividad o programas objeto de la colaboración.

*Indarrean dauden legeen arabera eratuak egon beharko dira eta Eusko Jaurlaritzaren Elkarten Erregistroan inskribatuak.*

Deberán estar constituidas de acuerdo con la legislación vigente e inscritas en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco.

***3. artikulua. Laguntza emateko prozedura***

**Artículo 3. Procedimiento de concesión**

*Norgehiagoka eta hainbanaketa, ondoko formularen arabera: (P/T) x N, hizkien esanahia ondoko hau dela:*

Concurrencia competitiva y prorrateo, según fórmula (P/T) x N siendo

- *N = onuradunak lortutako puntu-kopurua.*
- *P: aurrekontu-partida erabilgarria.*
- *T: eskatzaile guztiek lortutako puntuen batura osoa.*

- N = número de puntos obtenidos por la persona beneficiaria.
- P = partida presupuestaria disponible.
- T = suma total de los puntos obtenidos por todas las personas solicitantes.

***4. artikulua. Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak***

**Artículo 4. Criterios para la asignación de subvenciones**

| **Contenido del programa**<br>***Programaren edukia*** | **Hasta 35 puntos**<br>***35 puntu, gehienez*** |
|---|---|
| • Objetivos/*Helburuak*<br>• Actividades/*Jarduerak*<br>• Aplicabilidad del programa/*Programaren aplikagarritasuna*<br>• Métodos de evaluación/*Ebaluazio-metodoak*<br>• Propuestas de mejora/*Hobetzeko proposamenak*<br>• Introducción de elementos innovadores/*Elementu berritzaileak* | 8 puntos/*puntu*<br>8 puntos/*puntu*<br>5 puntos/*puntu*<br>8 puntos/*puntu*<br>3 puntos/*puntu*<br>3 puntos/*puntu* |
| • | |
| **Continuidad y estabilidad del programa**<br>***Programaren jarraipena eta egonkortasuna*** | **Hasta 5 puntos**<br>***5 puntu, gehienez*** |
| • Inferior a 5 años/*5 urte baino gutxiago*<br>• Superior a 5 años/*5 urte baino gehiago* | 2 puntos/*puntu*<br>5 puntos/*puntu* |
| **Participación y colaboración**<br>***Partaidetza eta lankidtza*** | **Hasta 15 puntos**<br>***15 puntu, gehienez*** |
| • Asiste habitualmente a los órganos de participación ciudadana<br>*Herritarrak parte hartzeko dauden organoetan parte hartzen du*<br>• Colabora con otras asociaciones<br>*Beste elkarte batzuekin lankidetzan aritzen da*<br>• Colabora en la organización de actividades municipales<br>*Udal jardueren antolaketan parte hartzen du* | 5 puntos/*puntu*<br><br>5 puntos/*puntu*<br><br>5 puntos/*puntu* |
| **Interés social del proyecto. Alcance**<br>***Gizarte interesa*** | **Hasta 30 puntos**<br>***30 puntu, gehienez*** |

| | |
|---|---|
| Aspectos a valorar<br>• Sector de la población a que se dirige<br>*Biztanleriaren zein sektoreri dagoen zuzenduta*<br>• Nº de personas implicadas en la organización<br>*Antolaketan parte hartzen duen pertsona kopurua*<br>• Nº previsto de personas usuarias o receptoras<br>*Aurreikusten den erabiltzaile edo hartzaile kopurua*<br>• Coste de la actividad<br>*Jardueraren kostua*<br>• Duración del proyecto (organización y realización)<br>*Proiektuaren iraupena (antolatzen eta burutzen)*<br>• Necesidades sociales y culturales que cubre<br>*Betetzen dituen beharrizan sozialak eta kulturalak*<br>• Recursos necesarios para su realización (de espacio, materiales y humanos…)<br>*Behar diren baliabideak (espaziozkoak, materialak eta giza-baliabideak…)*<br>• Realización de la misma o semejante actividad por parte de otras organizaciones públicas o privadas.<br>*Beste erakunde batek (publikoa zein pribatua) jarduera bera edo antzerakoa antolatze duen*<br><br>Bajo/*Txikia*<br>Medio/*Ertaina*<br>Alto/*Handia* | <br><br><br><br><br><br><br><br><br><br><br><br><br><br><br><br><br><br><br><br>0-10 puntos/*puntu*<br>11-20 puntos/*puntu*<br>20-30 puntos/*puntu* |
| **Tratamiento de la diversidad**<br>***Aniztasunaren tratamendua*** | **Hasta 15 puntos**<br>***15 puntu, gehienez*** |
| • Contempla la normalización linguística<br>*Hizkuntza normalkuntza kontutan izatea*<br>• Utiliza lenguaje no sexista.<br>*Hizkuntza ez sexista erabiltzea*<br>• Contempla la perspectiva de género<br>*Genero ikuspegia barne hartzea*<br>• Contempla actividades para la integración de la inmigración<br>*Etorkinak gizarteratzeko jarduerak barne hartzea*<br>• Contempla actividades destinadas a potenciar valores<br>*Balioak bultzatzeko jarduerak barne hartzea* | 3 puntos/*puntu*<br><br>3 puntos/*puntu*<br><br>3 puntos/*puntu*<br><br>3 puntos/*puntu*<br><br>3 puntos/*puntu* |

*50 puntu lortzen ez dituzten eskabideak ez dira dirulaguntzak*

Las solicitudes que no alcancen 50 puntos no serán consideradas a efectos de

*esleitzerakoan kontutan hartuko.*

otorgamiento de subvención.

***5. artikulua. Organo instruktorea***

*Espedientea ingurumen teknikariak bideratuko du.*

**Artículo 5. Órgano instructor**

La instrucción del expediente corresponderá al/a la Técnico/a de Medio Ambiente.

***6. artikulua. Laguntzaren edo diru-laguntzaren ebazpena***

*Organo instruktoreak behin eskabideak ebaluatu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrari aurkeztuko dio behar bezala arrazoituta, organo horrek ebaluazioaren emaitza zehazten duen txostena egin dezan.*

*Aipatutako txostena alkateari, alkateordeari edo deitutako diru-laguntza edo laguntzen xedearengatik eskumena duen zinegotzi ordezkariari aurkeztuko zaio.*

**Artículo 6. Resolución de la subvención o ayuda**

Una vez realizada la evaluación de las solicitudes por el órgano instructor, éste someterá la citada evaluación, debidamente motivada, a la Junta de Gobierno Local, que emitirá informe en el que concrete el resultado de la evaluación efectuada.

Dicho informe se elevará al/a la Alcalde/sa, Teniente de Alcalde o concejal/a Delegado/a competente por razón de la materia objeto de las ayudas o subvenciones convocadas.

***7. artikulua. Ordainketak***

*Diru-laguntza edo laguntza hurrengo irizpideei jarraiki ordainduko da:*

*Ikastetxeen urteko programak:*

*Zenbateko osoaren %100 lehenengo hilaren aurretik, ebazpena eman eta biharamunetik aurrera zenbatuta.*

*Jarduera zehatzak:*

*a) Zenbateko osoaren %90 lehenengo hilaren aurretik, ebazpena eman eta biharamunetik aurrera zenbatuta.*

*b) Gainerako %10, onuradunek emandako gastu eta diru-sarreren frogagiriak egiaztatu eta onartzen*

**Artículo 7. Pagos**

El pago de la subvención o ayuda se realizará siguiendo los siguientes criterios:

Programas anuales de centros educativos:

100% del total antes del primer mes contado a partir del día siguiente al de la resolución.

Actividades concretas:

a) 90% del total antes del primer mes contado a partir del día siguiente al de la resolución.

b) 10% restante transcurrido un mes a partir de la verificación y aceptación de los justificantes de

*direnetik hilabete igaro ondoren.*

gastos e ingresos aportados por las personas beneficiarias.

***8. Artikulua. Diru-laguntzak zuritzeko epea***

**Artículo 8. Plazo de justificación**

*Diru-laguntza bakoitza zuritzeko frogagiriak, jarduera amaitu eta hilabeteko epean aurkeztu beharko dira.*

La presentación de la justificación correspondiente a cada subvención deberá realizarse en el plazo de un mes desde la finalización de la actividad.

*Jarduerak urtearen amaierara arte irauten badu, diru-laguntza zuritzeko agiriak ez dira urteko abenduaren 22 baino geroago aurkeztuko.*

Cuando la actividad se desarrolle hasta el final del año, la justificación no podrá exceder la fecha de 22 de diciembre del año en curso como plazo máximo.

*Beste gairik ez dagoenez aztertzeko, bilkura amaitutzat eman da 11:45 direnean eta nik, Idazkari gaituak naizenez legez, jasotako guztiaren fede ematen dut.*

No habiendo más asuntos a tratar, se da por finalizada la sesión levantándose la misma a las 11:45 del día de la fecha, de todo lo cual yo como Secretaria habilitada, doy fe.

*Akta honek bost horri ditu alde bietatik idatzita eta 1101eik 1110ra zenbakituta.*

Consta esta acta de cinco folios escritos por ambas caras, que lleva número 1101 al 1110.

Fdo./Sin.:
Alcalde/Alkatea
Juan Carlos Abascal Candás
10-04-2019 13:58

Fdo./Sin.:
Secretaria habilitada/Idazkari gaitua
Blanca Barragán Alba
09-04-2019 15:14